



ALDERATU ETA EGIAZTATU

Covid

Adina: 14 - 16 urte

Helburua: Itaka-Eskolapioak Fundazioak proiektu sozialak dituen 16 herrialdeetan Covid-19ak izan duen eraginari buruzko informazioa alderatzea eta egiaztatzea.

Jardueraren garapena:

“Eraldatzen hasteko prest” elkartasun-kanpaina aurkeztuko da. Kanpaina horretan azaldu egingo da koronabirusak eragindako pandemiaren ondorioz mundu osoan osasun-, ekonomia- eta krisi humanitario bat dagoela eta pertsona asko kaltetuta atera direla, bai eta Itaka-Eskolapioek munduko 16 herrialdeetan burutzen dituzten proiektu sozialak ere.

“Alderatu eta egiaztatu” metodologian oinarrituta, jarduera bat proposatzen da eta Itaka-Eskolapioak dauden 16 herrialdeak eta ikertu behar dituzten datuak agertzen diren taula bat banatzen zaie:

- Covid-19aren pandemiaren intzidentzia
- Giza Garapenaren Indizea
- Medikuen dentsitatea

- Ospitaleko oheak
- Beste daturen bat, egoki baderitzogu.

Ikasleek aurreko puntuan eskatzen zaien informazioa bilatuko dute web-orrian emango diren esteken bidez. Lana binaka egin daiteke 16 herrialdeak banatzeko, edo banaka.

Taulan jasotako informazioa erkatu eta aztertu egingo da eta ondorioak aterako dira gelan, hausnartzea eta elkartasunaren aldeko proposamen-ideiak ekartzea sustatuz.



Eranskinak hemen
deskargatu daitezke:

ERANSKINA_TAULA
ERANSKINA_ALDERATUETAEGIAZTATU
(lagungarria bada)
ERANSKINA_ESTEKAK